

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Aldaketa egitea COVID-19ak eragindako osasun larrialdiko krisiak mikroenpresetan eta autonomoengan izandako eragina arintzeko laguntzen oinarri arautzaileen lehen oinarrian

DDBN(Identif.): 506937

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdns-trans/GE/es/convocatoria/506937>).

Udalbatzak 2020ko maiatzaren 14ko bilkuran hartutako erabaki bidez, onespena eman zitzaizen COVID-19ak eragindako osasun larrialdiko krisiak mikroenpresetan eta autonomoengan izandako eragina arintzeko laguntzen oinarri arautzaileei. Erabaki hori 2020ko maiatzaren 22ko ALHAOn (57. zk.) argitaratu zen.

Lehenengo oinarrian hiru dirulaguntza lerro arautu ziren, besteak beste, laguntza itzulgarri batzuk:

“Diru kopuru bat ematea, zeina udalari itzuli beharko baitzaio bost urteko epean, inolako interes tasarik gabe eta hilean zenbateko bat ordainduz. Zenbateko hori kalkulatzeko, eragiketa hau egingo da: emandako zenbatekoa zati 60. Lehenengo kuota 2021eko urtarrilean ordaindu beharko da, baina interesdunak egoki deritzon zenbatekoaren ordainketa partzialak egin ditzake, edo zor duen zenbateko osoa edozein unetan ordaindu.

Laguntzaren zenbatekoa gehienez ere 8.000 euro izango da autonomoentzat, eta 15.000 euro mikroenpresentzat”

Laguntza horien helburua zen arintzea COVID-19ak eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren eta hura garatzeko araudiaren bidez hartutako ezohiko neurriek enpresa eta autonomoengan zuten eragin negatiboa.

Udaldian, alarma egoera amaitu ondoren, deseskalada prozesu bat egin zen normaltasuna berreskuratzeko. Hala ere, udazkena hasita, COVID kasuen kopuruak goranzko joera hartu zuen, eta, horren ondorioz, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez beste alarma egoera bat onetsi zen, udalerriko jarduera sozioekonomikoa berreskuratzea eragozten duten neurri murriztaileak hartzeko bide ematen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, nabarmentzekoa da zer neurri hartu diren Lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretuaren bidez (Osasun publikoko prebentzio neurriak hartzen dira alarma egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko) eta hura garatzeko araudian.

Neurrien artean, udalerrien arteko mugikortasunaren murrizketak nabarmentzen dira, honako hau dioenean: “Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean sartzeko eta bertatik irteteko mugak ezartzen dira”

(...)

Era berean, mugatuta geratzen da bizilekua finkatuta duten udalerriko mugarte bakoitzeko pertsonen sarrera eta irteera, aurreko apartatuan aurreikusitako salbuespenekin, eta mugakide diren udalerrien arteko mugikortasuna baimentzeari kalterik egin gabe, ohiko igarobidean, banakako gizarte, ekonomia eta kirol jarduerak edo aire zabaleko jarduera fisikoak egiteko.

(...)”

Pandemiatik eta alarma egoeraren adierazpenetatik sortutako ondorio ekonomikoak direla-eta –eta horiek denboran luzatzen ari dira birusari eusteko ezohiko neurri berriak hartzearen ondorioz –, komenigarria da Zigoitiko Udalak autonomoei eta mikroenpresei aipatutako dirulaguntzen deialdiaren barruan emandako laguntza itzulgarriak itzultzeko epea atzeratzea, egoera ekonomiko prekariora arintzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (aurrerantzean DLO) 19. artikulua, diruz lagundutako jardueren finantzaketa arautzean, honako hau ezartzen du berariaz 4. apartatuan: “Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, dirulaguntzaren araudian ezarritako baldintzetan”

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua (aurrerantzean, DLOE) onesten duen uztailaren 21eko duen 887/2006 Errege Dekretuaren 61. artikulua onuradunak egin beharreko jardueraren zehaztapena arautzean, honako hau ezartzen du berariaz lehenengo paragrafoan: “Dirulaguntzaren xedea bada onuradunaren jarduera jakin bat bultzatzea, jarduera hori eskabidean adierazitako baldintzetan egiteko konpromisoa hartu duela ulertuko da, Administrazioak emate prozeduran edo gauzatze aldian onartu dituen aldatetekin, baldin eta aldateta horiek ez badute aldatzen dirulaguntza ematearekin lortu nahi zen helburua”

2. apartatuan gaineratu duenez, hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie, “Administrazioak, emate prozeduran zehar, proposatu ahal izango du eskatzaileak proposatutako jarduera egiteko modua edo baldintzak aldatzea”, alde aurretik onuradunaren baimena lortuta. Baimen hori eman dela ulertuko da, baldintza berriak jakinarazi ondorengo 15 egunean ez badu adierazi aurka dagoela.

Era berean, DLOEren 64. artikulua emate ebazpena aldatzeko aukera ematen du, interesdunak hala eskatuta, oinarri arautzaileetan horretarako aurreikusitako baldintzak betetzen badira eta hirugarrenei kalterik eragiten ez badie.

Era berean, DLOEk 70. artikuluan aukera ematen dio Administrazioari, ofizioz edo interesdunak eskaturik, ezarritako epeak luzatzeko, betiere, komenigarritzat jotzen bada eta besteren eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Epearen erdia luza daiteke, gehienez ere.

COVID-19aren osasun krisiak sortutako salbuespenezko eta aurrekaririk gabeko egoera horren aurrean, eta laguntzak itzultzeko epea malgutzearren, Udalbatzak, aho batez, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespina ematea COVID-19ak eragindako osasun larrialdiko krisiak mikroenpresetan eta autonomoengan izandako eragina arintzeko laguntzen 1. oinarriaren aldatetari (ALHAO, 57. zk., 2020ko maiatzaren 22koa), eta laguntza itzulgarriak itzultzen hasteko epea 2021eko ekainera arte atzeratzea. Honela geratuko da idatzita:

Honako hau dioen lekuan:

“Diru kopuru bat ematea, zeina udalari itzuli beharko baitzaio bost urteko epean, inolako interes tasarik gabe eta hilean zenbateko bat ordainduz. Zenbateko hori kalkulatzeko, eragiketa hau egingo da: emandako zenbatekoa zati 60. Lehenengo kuota 2021eko urtarrilean ordaindu beharko da, baina interesdunak egoki deritzon zenbatekoaren ordainketa partzialak egin ditzake, edo zor duen zenbateko osoa edozein unetan ordaindu.

Laguntzaren zenbatekoa gehienez ere 8.000 euro izango da autonomoentzat, eta 15.000 euro mikroenpresentzat”

Beste hau esan behar du:

“Diru kopuru bat ematea, zeina udalari itzuli beharko baitzaio bost urteko epean, inolako interes tasarik gabe eta hilean zenbateko bat ordainduz. Zenbateko hori kalkulatzeko, eragiketa hau egingo da: emandako zenbatekoa zati 60. Lehenengo kuota 2021eko urtarrilean ordaindu beharko da, baina interesdunak egoki deritzon zenbatekoaren ordainketa partzialak egin ditzake, edo zor duen zenbateko osoa edozein unetan ordaindu.

Hala ere, alarma egoeren murrizketa neurriak luzatzearen ondorioz, eta alarma egoeraren ondorio negatiboak arintzeko, 2021eko ekainera arte atzeratuko da itzulketaren hasiera, onuradunaren baimena lortu ondoren. Baimen hori emanda dagoela ulertuko da, baldin eta baldintza berria jakinarazi eta 15 eguneko epean onuradunak aurka dagoela adierazten ez badu.

Laguntzaren zenbatekoa gehienez ere 8.000 euro izango da autonomoentzat, eta 15.000 euro mikroenpresentzat”

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn, udalaren iragarki taulan eta web orrian (www.zigoitia.eus) argitaratzea.

Hirugarrena. Administrazio Orokorreko teknikariak behar den dokumentazioa ematea BDNSri, deialdiaren laburpena ALHAOn argitara dadin (ebazpen honen II. eranskinean dago horren testua).

Laugarrena. Emakidadunei erabaki hau jakinaraztea.

Ondategi, 2020ko abenduaren 22a

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCIA